

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 3043

*118/2014 DEKRETUA, ekainaren 24koa, Domingo de Arrotegui Fundazioa gizarte-interesekotzat aitortzeko dena.*

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatzen denez, gizarte-interesekotzat aitortu ahal izango dira gizarte-zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, hain zuzen ere, aitortzeko haien ibilbidea eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreak EAEko gizarte-zerbitzuak garatzeko emandako laguntza. Arauz ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte, betiere.

Urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak, gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortzeari buruzkoak, gizarte-intereseko aitorpena lortzeko betekizunak eta prozedura arautzen ditu.

Haren babesean, Domingo de Arrotegui Fundazioak aipatutako aitorpena eskatu du, uste baitu merezi duela gizarte-interesekoa dela aitortzea, gizarte-ekintzaren arloan egiten dituen jarduerengatik.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jakinarazi bezala, Domingo de Arrotegui Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1907an eratutakoa; haren xede nagusia da ongintza partikularra ezartzea, aterpea eta laguntza eman ahal izateko, batik bat, adindu babesgabei. Ibilbide historikoa du Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen; izan ere, egiaztatu du bere jarduera etenik gabe burutu duela 2008tik, Busturia eta Kanalako udalerrietan, nagusiki.

Aipatu 424/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluan adostutako dekretu bidez aitortuko da gizarte-interesekotzat elkarte hau, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta, zeinak dagokion espedientea izapidetu baitu.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko ekainaren 24an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Aitortzea Domingo de Arrotegui Fundazioa gizarte-interesekoa dela, burutzen dituen gizarte-ekintzen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzeagatik.

2. artikulua.– Aitortzea Domingo de Arrotegui Fundazioari aitorpen honen berezko eskubideak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 24an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.